

Etxea berotan, zenbat eurotan...

Berogailua modu eraginkorren erabilia eta etxebizitza egoki isolatuta, diru dezente aurreztu liteke

Udazkenean hozten hasten da giroa, eta neguan dardaraka jartzeko moduko egunak izaten dira sarri askotan. Berogailua jarri beste aukerarik ez da izaten, baina goxotasun horrek ere ematen du zer pentsatua, hilabete bukaeran argiaren edo gasaren faktura etortzen da eta... Ezin da ahaztu, gainera, krisi gogorrek harrapatu gaituela eta oinarritzko hornigai batzuk garestitzen ari direla. Ez da oreka erraza lortu beharrela: etxean goxo egotea eta berogailutan dirua aurrezte. Baliabideak modu eraginkorren erabiltzen ikasi beharra dago, eta gure aurrekoek aspaldidanik erabili izan dituzten erremedioak berriz ere abian jartzen.

Berogailua

Etxe guztietan ez da aukerarik izaten termostatoa jaitsi eta dirua aurrezteko. Etxejabe ugari bizi diren eraikin askotan guztiak berdinduntzen dute, eta batek termostatoa jaitsita ere, besteek adina ordaindu beharko du. Hori bai, guztiak bat etortzen badira eta etxejabeen batzarrean erabakitzen badute berogailua ordu gutxiagoz jartzea, orduan aurreztuko dute, jakina.

Berokuntza-sistema banakakoa dutenek badute modua neurri batzuk hartu eta berogailutan diru gutxiago gastatzeko (baita, berokuntza kolektiboa izan arren, nor berea ordaintzen duen etxeetan ere).

┃ **Etxea 20 C°tan.** Etxea tenperatura horretan edukitzeko aholkua ematen du Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDEA), horixe jotzen du-eta etxean eroso egoteko modukotzat, izugarritzko dirutzak gastatu gabe. Hortik gora igotzen den gradu bakoitzeko, % 7 handitzen da gastua. Gaez, berriz, mantak eta tapakiak erabiltzen direnez, 15-17 C° inguruan ere egon daiteke etxea. Berogailua itzali ere egin liteke gaez, eta goizean berriz abiarazi.

┃ **Programatzen diren termostatoak jarri.** Etxea hutsik egoten bada ordu askotan edo jabeek zenbait egun kanpoan ematen badituzte, oso komenigarriak izaten dira gisa horretako erregulatuak. Norberak nahi duen bezala programa ditzake; adibidez, etxea 15 gradutan egoteko hutsik dagoenean eta gainerakoan 20 C°tara igo dadin. Horrela eginda, % 8 eta 13 artean aurreztu liteke energia.

┃ **Ez estali berogailuak.** Zenbaitetan, berogailuek itsusi egiten dutelako edo, estali egiten ditu jendeak; bes-

te batzuetan, objektu edo altzariren bat jartzen diete aurrean, eta beste hainbatetan arropa bustia edo hezea lehertzeko erabiltzen dira. Baina jokabide horren erruz, beroa ez da egoki zabaltzen gela osora eta igo egin behar izaten da tenperatura (ondorioz, faktura ere igo egiten da).

Etxea isolatu

Leihoek kristal sinpleak badituzte, nahiz eta itxita egon, bero asko galtzen da. Horrexegatik, etxea berritzeko lanen bat egiten denean, oso garrantzitsua da kristal bikoitzak edo leiho bikoitzak jartzea, eta zubi termikoa duten egiturak. Baina beti ez da modurik izaten halakoak egiteko, diru asko behar izaten baita; hori dela eta, beste modu batzuk bilatu behar dira beroa ihes joan ez dadin.

┃ **Itxi pertsianak iluntzen hasi orduko.** Era horretan, kanpoan hozten hasten duenean, beroak luzaroago irauten du etxe barrenean. Gortinek ere dezente

isolatzen dute, batez ere lodiak bada; horrexegatik, gaez zabaldua edukitzea komeni da. Egunean zehar, berriz, pertsianak irekita eta gortinak baztertuta edukitzea komeni da, eguzkia etxe barrenera sar dadin eta bero dezan.

┃ **Tartetxo batez soilik haizeberritu.** Hamar minutu aski dira etxea haizeberritzeko. Hobe da goizean goiz ez egitea, orduan egiten du-eta hotzik handiena, baina lanera joan behar dutenek orduan egin beharko dute.

┃ **Tapatu zirrikituak.** Leiho berriak jartzeko modurik ez badugu, haizezirrikituak tapatzea da irtenbide bat, silikona erabiliz, adibidez; irtenbide merkea da, eta berogailutan aurrezteko modua emango digu. Zinta itsas-korrek ere isolatzaile onak dira.

┃ **Erabili haize-babesgarriak.** Ate azpitik eta leiho ertzetatik haize hotza sartzen da askotan, eta korrante txikiak sortzen dira. Haize-babesgarriak erabiliz gero, beroak luzaroago iraungo du etxe barrenean. Beste aukera bat da barra zurrinak jartzea atearan azpialdean, zurezkoak, aluminiozkoak edo PCVzkoak, torlojuekin lotuta. Azpian feltroa dutenez, ez dute uzten hotza sar dadin. Gainera, gelako atea itxita utziz gero, denbora gehiagotan eutsiko diete beroari, batez ere gela horietako bat erabiltzen ez bada eta berogailua itzalita egoten bada.

┃ **Probetxu atera beste gela batzuetako beroari.** Etxeke gelaren batean tenperatura handia izaten bada, beroari beste leku batzuetara zabaltzen uztea komeni da. Dutxa bat hartu ondoren, bero handia metatzen da komunean, eta beste gela batzuk berotzeko ere balio dezake (gehienean, leihoak irekitzeko joera izaten da, lurrundu ez daitezten).



Beste irtenbide batzuk

┃ **Alfonbrak.** Horiek ere lagundu egiten dute beroari eusten, batez ere zorua terrazoz egina bada, zurezkoa baino hotzagoa izaten da eta. Oinei goxotasuna ematen diete, eta ez dute gorputzera pasatzen zoruko hotza.

┃ **Janari eta edari beroak.** Zopa, tea eta, oro har, janari-edari beroak lagun onak dira hotzari aurka egiteko. Neguan horixe eskatzen du gorputzak, eta are gehiago etxeke tenperatura zorrotz samar zaintzen ari bagara. Alditxo baterako berotuko digute barrena.

┃ **Arropa beroa.** Alferrik da aurretik zerrendatu diren neurri guztiak hartu eta etxean mahuka hutsik ibiltzea. Etxean neguko oinetakoak erabiltzea eta galtzerdi eta jertse lodiak janztea modu ona da berogailua hainbestetan piztu behar ez izateko. Oherako ere balio dute aholku horiek: franelazko maĩndireak erabil daitezke kotoizkoen lekuan, lumazko ohe-gainekoak, manta lodiagoak eta pijama epelagoak... Horiek guztiak neurri egokiak dira gaez hotzik ez izateko.

┃ **Ur beroko poltsak.** Ohea zertxobait epeldu nahi badugu lotara sartu aurretik, zer hobea ur beroko poltsa bat jartzea baino maĩndirean artean, eta gero gorputzaren ondora ekartzea. Irtenbide merke-merkea da, hainbat hamarkadatan erabili izan dena.

➔ www.consumer.es

